



MEMORIA



AURKIBIDEA

- 1. AURREKARIAK ETA XEDEA**
- 2. EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA**
- 3. AURRETIAZKO INFORMAZIOA**
 - 3.1. KARTOGRAFIA ETA TOPOGRAFIA
 - 3.2. GEOLOGIA ETA GEOTEKNIA
 - 3.3. UKITURIKO ZERBITZUAK
 - 3.4. LURREN ERABILGARRITASUNA
 - 3.5. INGURUMENA
- 4. HARTUTAKO SOLUZIOAREN JUSTIFIKAZIOA**
- 5. PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA**
- 6. GAUZATZEKO EPEA ETA BERMEA**
- 7. AURREKONTUA**
- 8. OBRA OSOA**
- 9. PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK**

1. AURREKARIAK ETA XEDEA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jasangarritasun Departamentua, Eusko Jaurlaritza, Mankomunitateak eta Ur Partzuergoak eta beste erakunde publiko batzuk lagun dituela, inbertsio ahalegin handia ari da egiten ibaien saneamendua lortzeko. Eta, helburu horretarako, kolektore eta araztegi sare berriak ari da eraikitzen. Hala ere, Foru Aldundiak berak egindako azterketek erakusten dutenez, ibaien saneamendua gorabehera, beharrezkoa da ibaiak lehengoratzeari lortzeko beste jarduketa batzuk ere gauzatzea ibai ekosistemen ingurumena berreskuratzeko.

Ibai ekosistemak oso nahasirik daude giza jardueraren ondorioz. Aldatuta daude emari solidoak eta likidoak, eta aldaturik daude, berebat, ibaien morfologia eta dinamika. Horrek ibaien espazioa asaldatzen eta okupatzen du, eta, era berean, uren kalitatea apaltzen eta izaki bizidunen komunitatearen osaera eraldatzen du. Gure ibai ekosistemetako alterazio talde garrantzitsuenetako bat zera da, ibai morfologia aldatzea luzetarako barrerekin, hau da, egitura morfologikoak aldarazten dituzten presa txikiekin eta presekin, kasu askotan galarazi egiten baitute ibilguak uholde lautadekin konektatzea edo aldarazi egiten baitituzte ibaietako biztanleen habitat naturalak. Ibaietan ur-maila biltzeko edo igotzeko aurkitzen ditugun oztopoek eragotzi egiten dute espezieak eta sedimentuak igarotzea, eta, ondorioz, zatikatu egiten dira habitata eta populazioak.

Ibai ekosistemen degradazioak modu naturalean ematen zizkiguten zerbitzu asko galtzea ekarri du: uholdeak, lehortekak edo higadura erregulatzea; akuiferoak ur biltegi natural gisa kargatzea; kutsadura lausoa kontrolatzea; eta uholde lautadetako edo ibarretako lurzoruen emankortasuna hobetzea. Zerbitzu horiek urari lotutako ekosistemen ekintzaren emaitza dira, ibaiak modu ezin hobean funtzionatzen duenean. Gure ibaien egoera dela eta, beharrezkotzat jotzen da esku hartzea, ahal den neurrian funtzionamendu ekologiko egokia berroneratzeko.

Ildo horretan, Gipuzkoako arroetan presa txiki asko daude, eta, arrainen pasabidea mugatzeaz gainera, galarazi egiten dute sedimentuen joan-etorria.

Presa txiki horien barruan, erabileraren araberako sailkapena egin daiteke. Gaur egun, badira ura deribatzen erabiltzen diren presa txikiak, instalazio hidrauliko zaharrak desagertu ondotik abandonatuta gelditu diren beste presa txiki batzuk, eta azpiegiturak gurutzatzeko baino balio ez dutenak.

Abandonatutako edo erabiltzen ez diren presa txikiak, alabaina, ez dira aztertu eta egokitu behar ibai berroneratzeko.

Horregatik, Foru Aldundiak zenbait jarduera egin nahi ditu Oria ibaiaren arroan ageri diren presa txiki horietan.

Proiektu hau luzetarako iragazkortasuna eta, ondorioz, arrainen mugikortasuna eta sedimentuen joan-etorria hobetzeko aurreikusitako jarduketa bati dagokio, presa txikien egungo egoera aztertu ondoren.

Proposatutako soluzioa, funtsean, oztopoa kentze gisa laburbildu daiteke.

Proiektu hau Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantzatzen du, Euskadi 2021–2027 Programaren esparruan.

2. EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA

Biblioteca presa txikia (AORIAME000630000) Amezket ibaiaren ibilguan dago, Oria ibaiaren arroan, Alegiako udal mugartean.

Presa txiki hori eremu babestu batetik gertu dago, ORIA GARAIA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAN (ES2120005). Hirigune batean dago.

Guztira 9 m luze, 0,30 cm lodi eta 0,35 m garai den ebakidura angeluzuzeneko grabitate presa batek osatzen du. Presa txikia 1,75 m luzeko hormigoizko lauza bati itsatsita dago, zeinak saneamendu hodi bat babesten baitu. Hodi hori ez dago martxan. Aurreikusten da etorkizunean erabiliko dela, eta, beraz, ez du behar inolako aldaketarik. Presa txikia hartzen duen ibaiaren bi ertzetan hormigoizko hormak ageri dira.



3. AURRETIAZKO INFORMAZIOA

3.1. Kartografia eta topografia

Foru Aldundiak eginda dauka jarduketa eremuaren egungo jasotze topografikoa.

2. eranskinean (Topografia) ageri da jasotze horri buruzko informazioa.

3.2. Geologia eta geoteknia

Amezketara ibaiaren inguruko azterketa geologiko eta geoteknikoa egin da. Geologia eta geoteknia izeneko 3. eranskinean sartu da azterlan hori. Agiri horretan, egiaztatzen da posible dela eraisteko soluzioa.

3.3. Ukituriko zerbitzuak

Egiaztatu da saneamendu hodi bat dagoela eskuinaldean, hormigoizko dado batek eta saneamendu gurutzatze batek babestuta, zeina hormigoizko lauza baten azpian baitago, presa txikiaren ondoan, errekan gora. Bi hodiekin ez dute galaraziko presa txikia eraistea.

3.4. Lurren erabilgarritasuna

Ez da aurreikusten behin betiko lursail okupaziorik, egin beharreko obrak Amezketara ibaiaren ibilguaren barnean egingo baitira erabat.

Sarbideetan aldi baterako okupazioak aurreikusi dira, bertara iritsi ahal izateko.

8. eranskinean (Lurzatiak) zehazten da erasanen zerrenda.

3.5. Ingurumena

BIBLIOTEKA presa txikia ORIA GARAITIK (ES2120005) gertu dago. Hori dela eta, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren txostena atxikitzen da, hura baita Kontserbazio Bereziko Eremuaren kudeatzailea. Hauxe dio:

“Bidalitako dokumentazioa aztertu ondotik, eta Natura 2000 Sarean dituen ondorioei dagokienez, sinatzen duen teknikariak proiektuaren ALDEKO txostena ematen du”.

Txosten horrekin batera, ingurumena zaintzeko planaren dokumentua erantsi da, proiektua egikaritzeko. Bi dokumentuak 9. eranskinean (Ingurumen txostena) daude jasota.

Lanak egin bitartean eta jarduketaren ondoren, lanen jarraipena egingo da eta ingurumena babesteko neurri jakin batzuk aplikatuko dira. Lan horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren berezko bitartekoekin egingo dira, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren lankidetzari baliaturik.

4. HARTUTAKO SOLUZIOAREN JUSTIFIKAZIOA

Presa txikien aurrean konektibitatea hobetzea planteatzeko orduan, oinarritzko hiru soluzio har daitezke kontuan:

- Presa txikia eraistea.
- Arrapala bat sortzea.
- Arrapala erako edo hormigoizko eskala bat eraikitzea.

Lehenengo aukera da printzipioz egokiena, ibaia hasierako egoerara itzultzen baitu. Kasu horietan, komenigarria da kontuan hartzea ezen, urte kopuru jakin bat duten presa txikietan, horrek eragiten duen sedimentuen soberakinak eta metaketak ibai dinamika berri bat garatzen dutela ekosistema berriekin. Ondoren, hiri garapenekin, zimenduekin eta abarrekin, ezinezkoa edo oso zaila izaten da horiek eraistea. Presa txikiak berak aldatu egiten ditu ibaiaren ertzak, eta, beraz, oso zaila da hasierako egoerara itzultzea. Zenbait kasutan, gainera, gerta liteke presa txikiak balio arkeologiko nahiko interesgarria izatea, edo izan liteke zerbitzu edo kanalizazioaren baterako bide ere.

Hala ere, konektibitatearen ikuspegitik aukerarik desiragarriena dela kontuan hartuta, oztopoa erabat ezabatzeko aukera da proiektu honen helburu argia.


5. PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Jarraian, proiektua definitzen duten datu nagusiak deskribatzen dira.

Aurreikusten da presa txikia eraistea bere paretik gorantz dagoen laua kotaraino, zeinak saneamendu hodi bat babesten baitu.

Presa txikia ibai sekzio batean dago, eta haren ertzetan hormigoizko hormak ageri dira, harkaitzean bermatuta.

Eskuineko ertzean, berebat, saneamendu hodi bat dago hormigoizko trinkogune batean sartuta. Hodi hori, ez badago harri gainean bermatuta, hormigoi ziklopez ondoztatuko da.



Oro har, hauek dira egin beharreko jarduketak:

- Presa txikira garabia baliatuz iristea.
- Hormigoizko egitura eraistea.
- Eraitsitako hormigoi bolumena kargatu eta kudeatzaile baimenduari eramatea.
- Makinak erretiratzea eta bideak garbitzea.

6. GAUZATZEKO EPEA ETA BERMEA

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, epe hauek hartuko dira kontuan proiektu honen xede diren obretarako:

- GAUZATZEKO EPEA Bi (2) aste
- BERMEALDIA Hamabi (12) hilabete

Behin betiko epea Administrazio Klausula Berezien Agirian zehaztuko da. Agiri hori izango da, hain justu, obra bakoitza esleitzeko oinarria —baita aldi berean ere, hala egin badaitezke—.

7. AURREKONTUA

4. dokumentutik (Aurrekontua) ondorioztatzen denez, hauxe da proiektu honetarako aurrekontua:

GAUZATZE MATERIALAREN AURREKONTUA

Proiektatzen diren elementu guztien neurketetan oinarrituta eta obra unitateen prezioen taularen arabera, proiektu honen 4. dokumentuan eranstean diren aurrekontu partzialak egin dira, eta dagozkien kapituluetakoa gauzatze materialaren zenbatekoetan laburbiltzen dira.

JARDUKETA GAUZATZEKO AURREKONTUA: HAMAIIKA MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (11.895,78 €)

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

% 13ko gastu orokorrak, finantzarioak eta fiskalak eta % 6ko mozkin industrialak kontuan hartuta, eta, era berean, zenbateko horri BEZari dagokion ehunekoa aplikatuta (% 21), hau izango da LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA:

PRESA TXIKIEN GAINENKO JARDUKETAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA HAMAZAZPI MILA EHUN ETA HOGIETA ZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMOKOA DA (17.128,74 €).

8. OBRA OSOA

Proiektatutako lanok obra oso bat dira, hau da, erabilera publikorako entregatzeko modukoa, hargatik eragotzi gabe gerora handitzeak eta/edo hobekuntzak egitea proiektu independenteetan. Era berean, obra erabiltzeko beharrezkoak diren elementu guzti-guztiak biltzen ditu, betiere urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra betez, Erregelamendu horren manu jakin batzuk eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 233. eta 234. artikulua aldatzen dituen abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuarekin bat. Ikusirik zuzen idatzita dagoela, arduradunek onesteko proposamena egiten da.

9. PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK

Proiektu honek dokumentu hauek ditu:

1. DOKUMENTUA.- MEMORIA ETA ERANSKINAK

MEMORIA

ERANSKINAK

1. eranskina: Proiektuaren ezaugarri nagusiak
2. eranskina: Topografia
3. eranskina: Geologia eta geoteknia
4. eranskina: Kalkulu hidraulikoak
5. eranskina: Obra plana
6. eranskina: Prezioen justifikazioa
7. eranskina: Hondakinen kudeaketa
8. eranskina: Lurzatiak
9. eranskina: Ingurumen txostena
8. eranskina: Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana

2. DOKUMENTUA.- PLANOAK

- 01 Kokapena
- 02 Egungo egoera
- 03 Jarduketak
- 04 Eragindako serbitzuak
- 05 Sarbideak

3. DOKUMENTUA.- BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA



4. DOKUMENTUA.- AURREKONTUA

Donostia, 2025eko ekaina

PROIEKTUA IDAZTEA.

Sin.: Felipe Álvarez Rodríguez

Sin.: Arantza Unzurrunzaga Iturbe

Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria

Obra Publikoetako ingeniari teknikoa